



DENBORAREN KAPSULA

DENBORAREN KAPSULA: Etorkizunera edo urrutiko lekuren batera bidaiatuko duen albiste-collage baten sorrera eta zabalkundea.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Adinaren inguruko imaginarioa zuzenean ezagutzea. • Hiritar aktibo gisa edukien sormenean eta zabalkundean bizkortzea. • Inguruko mundua aztertzeko duten gaitasuna suspertzea. • Irudien eta testuen bidez gauzak adierazteko sintesia praktikatzeara. 	<p>Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irudiak erabiliz albisteak sortu. • Edukiak web-gunean zintzilikatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 10. • Adina: 14 – 18. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 saio: 2h/s.

ZERK KEZKAIZEN ZAITU?
GAURKOTASUNA ESKANEATZEN

Argitaratzailea:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea:

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

GAZTEAREN FORU ERAKUNDEA



INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

PKTENTERES- EN AZALEAN AGERTU NAHI AL DUZU? KONTAGUZU!

pkntereres@vitoria-gasteiz.org



2007ko abenduako azala.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKTexpres*es Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espiritu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKTenteres* aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKTenteres* (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilero argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKTenteres*: www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. DENBORAREN KAPSULA

Denboraren kapsularen ideian oinarrituta (gaur egungo mezuak eta objektuak gordetzeko ontziak dira eta etorkizuneko belaunaldiak aurkituko dituzten itxaropenarekin egiten dira), gazteek euren burua definituko dute dituzten kezkek eta interesak erabiliz. Jarduera hau, inguruan duten munduan euren burua irudikatze balioko duen albiste sortzea, hain zuzen ere, bakoitzaren nortasunari buruzko hausnarketa- eta azterketa –ariketa ezin hobea da.

Nerabeak, gizarteko beste talde batzuk bezala, edukien sortzaileak dira eta askotan hau ez da kontuan hartzen. Horregatik, lantegi honetan, collage-a bezain zaharrak eta internet-a bezain berriak diren teknikak nahastuz, albiste baten edukiak sortzeko eta zabalkundea egiteko aukera eskainiko diegu.

ZERK KEZKATZEN ZAITU? Gaurkotasuna eskaneatzen da lantegiaren emaitzak aldizkarian hartu duen behin betiko izenburua.

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKTexpres*es lantegien helburu orokorrak:

- *PKTenteres* aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espiritu kritikoa bultzatzea.
- Gazteen eta erakundeen arteko hurbiltzea-formulak sortzea.
- Gazteen arteko lotura parte hartzaile berriak sortzea.
- Hiritar aktibo gisa edukien sormenean eta zabalkundean bizkortzea.
- Berdintasunean eta genero kontuetan hezteak.

*PKTexpres*es lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak *PKTenteres* aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.



Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako behin betiko edukiak.

Jaits ezazu *PKTenteres* 51.zbk. (2007ko abendua) www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres



Lantegiko lan-eremua.

Denboraren kapsula lantegiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Nerabe-taldearen interesak eta kezak ezagutzea.
- Haien jardunean praktika egokiak sustatzea.
- Euren jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.
- Inguruko mundua aztertzeko duten gaitasuna suspertzea.
- Espiritu kritikoa eta autokritikoa bultzatzea.
- Sormena eta komunikazio-dohainak sustatzea.
- Sinboloak eta irudiak irakurtzen ikastea.
- Irudien eta testuen bidez gauzak adierazteko sintesia praktikatzea.
- Talde-lana, elkarrizketa eta ideiak komunean jartzea bultzatzea.

3. EDUKIAK

“Irudia sormen eta protesta gai gisa”

Parte-hartzaileen interesak.
Komunikabideak.
Irudiak eta sinboloak.
Forma eta edukia.

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea izango da. Denboraren kapsularen ideia abiapuntu hartuta, aldizkarietako, egunkarietako edo beraien argazkiak eta testuak erabiliz, albiste bat sortu behar dute.

Edukiak sortuta daudenean, El Carmen zentroak Flickr-en izango duen kanal batean zintzilikatuko dira.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 11 – 13 lagun.

Adina: 16 – 18 urte.

Sexua: Talde mistoa.


El Carmen ikastetxeko bi gelek osatzen dituzte lantaldeak. Ikasle hauek ez dute DBHko titulua, beraz, El Carmen ikastetxean daude HHE egiten. Ikastetxe honetan hamaika lantegi egiten dituzte, besteak beste, komunikazioari buruzkoa eta lantegi honen bitartez jarri ziren gurekin harremanetan beste ekimen hau aurrera ateratzeko.

Ikasturte honetan, komunikazio-lantegian, ikasleek koadernaketa, komikia, irratia eta bideo edo fotonobela bidezko narrazio laburrak landuko dituzte.

“Denboraren kapsula; gaur egungo mezuak eta objektuak gordetzeko ontziak dira eta etorkizuneko belaunaldiek aurkituko dituzten itzaropenarekin egiten dira.”



Collage-ekin lanean.



Parte-hartzaile baten collage-a.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2007ko azaroko 4 egun.

Azaroak 13.....2.00 h

Azaroak 14.....2.00 h

Azaroak 15.....2.00 h

Azaroak 19.....2.00 h

7. KOKAPENA

El Carmen ikastetxeko instalazioak.

Komunikazio-lantegiak erabiltzen duen gela berbera.

8. MATERIALA

Materiala:


- Bulegoko materiala: boligrafoak, errotuladoreak, itsagarria, guraizeak.
- Erreferentziazko irudi eta kartelak.
- Irudiak mozteko aldizkariak.
- Ordenagailuak eta internet-a.
- Inpresora.
- Azetatoak.
- Eskanerra.

Azpiegiturak:

- Aulkiak eta mahaia dituen gela bat.

Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Irudi pertsonalak.



Collage baten xehetasuna.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta enpatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna.
- Sormen-gaitasuna.
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.



10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. saioa

2eranskina: 2. saioa

3eranskina: 3. saioa

4eranskina: 4. saioa



Parte-hartzaile bat bere collage-a erakusten.

11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezkak, etab.

IA18

Aretxaga, 10

48003 Bilbao

946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK

Nerabe-taldearen **interesak eta kezak ezagutzea**.
Haien jardunean **praktika egokiak** sustatzea.
Irudien eta testuen bidez gauzak adierazteko sintesia praktikatzeko.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTaren aurkezpena.	PKTexpreses.	PKTenteres (aurreko zenbakiak).
10 min.	Lantegia azaldu.		
10 min.	Albiste-collage bat azaldu.	Formaren eta edukiaren arteko harremana.	Berrien edo kartelen adibideak.
30 min.	Brain storming-a.		
50 min.	Gaiaren eta gidoiaren inguruan lan egiten hasi.	Taldearen interesak.	Bulegoko materiala. Kartoi meheak. Lan egiteko aldizkariak eta argazkiak.
10 min.	Gogorarazi.	Irudiak. Berria. Mezuak. Norberaren irudiak.	

PKTaren aurkezpena-----**10 min.**
Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituaren... azalpen laburra.

Lantegia azaldu-----**10 min.**
Lantegia azaldu: Denboraren kapsula. Lantegia zertan datzan azaldu, planing-aren azalpen laburra.

Albiste-collagearen azalpena-----**10 min.**
Jarduera azaldu: albiste-collagea sortu. Irudiak eta testuak erabiliz, kartelak eta albisteak egitea proposatuko da. Gero, kartel eta berri horiek kapsuletan sartu eta etorkizunera edo urrutiko lekuetara egingo dute bidaia.

Zenbait kartelen eta albisteen adibideak erakutsiko dira eta formaren eta edukiaren arteko harremanaren inguruan azterketa txikia egingo da. ViñaRock, San Fermin, Andre Mari Zuria eta antzeko jai edo kontzertuen kartelak aukeratu dira eta baita, ikus-sendotasunean nabarmentzen direnak ere.

Brain storming-----**30 min.**
Brain storming bat egingo da talde guztiarekin 3-5 gai eta horiekin harremana duten zenbait hitz aukeratzeko. Gai eta hitz horiek izango dira albiste-collagea egiterakoan erabiliko ditugunak.

Gaiaren eta gidoiaren inguruan lan egiten hasi-----**50 min.**
Lanerako gaia aukeratuta, parte-hartzaile bakoitzak albiste-collagean adierazi nahi duen ideia gidoiaren zirriborroa egiteko garaia da.

Gogorarazi-----**10 min.**
Bigarren saiorako parte-hartzaileei albiste-collagea egiteko euren irudi propioak ekartzea eskatuko zaie.



2. SAIOA

HELBURUAK

Gazteei euren jarduerak aurrera ateratzeko **tresnak eskaintzea**.
Inguruko mundua aztertzeke duten **gaitasuna suspertzea**.
Sormena eta komunikazio-dohainak sustatzea.
Irudiak eta sinboloak irakurtzen ikastea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Nola egiten da kartel bat?	Forma eta edukia. Testua eta irudia.	Adibideak, albisteak edota kartelak.
65 min.	Albiste-collagea egin.	Asmatze- eta sortze –prozesua.	
15 min.	Komunean jarri lehen aldiz.	Forma eta edukia.	Bulegoko materiala.
15 min.	PKTenteres aldizkarirako testua adostu.	Idea bat komunikatzeko moduak. Irudiaren eta testuaren arteko harremana.	Kartoi meheak. Lan egiteko aldizkariak eta argazkiak. Ordenagailuak eta internet-a. Inpresora.
10 min.	Argitaragarria den materiala jaso (marrazkiak, argazkiak, testuak...).	PKTenteres.	

Nola egiten da kartel bat?----- **15 min.**
Albiste edo kartela asmatzen hasteko zenbait modu komentatuko dira adibideak erabiliz.

Albiste-collagea egin----- **65 min.**
Albistearen lehen gidoiari jarraiki, irudiak gehitzeko ordua da. Lehenengo saioan landutako mezua edo ideia eraiki behar da, baina oraingo honetan irudiak erabiliz.
Ikonoграфия bilatu (gaiarekin zerikusia duten marrazkiak), esaterako, musika: nota, gitarra, jendea dantzan, etab...

Komunean jarri lehen aldiz----- **15 min.**
Collage guztiak komunean jarri eta komentatu. Gauza berbera komunikatzeko modu desberdinei buruzko hausnarketa. Taldearen lanak birplanteatu hausnarketa aberasteko eta norberaren nahiz taldeko lana osatzeko.

PKTenteres aldizkarirako testua adostu----- **15 min.**
Aldizkariarekin kolaboratzeko aukera komentatu. Lantegian egindako lana komunikatzeko erabiliko den testuari buruz hainbat erabaki hartuko dira. Izenburua ere erabakitzen da eta baita irudiak eta bestelako zenbait xehetasun ere.

Argitaragarria den materiala jaso----- **10 min.**
Aldizkariko kolaborazioa osatzeko irudien bilketa.



3. SAIOA

HELBURUAK

Nerabeen arteko **elkarrizketa eta espiritu kritikoa bultzatzea**.
Hiritar aktibo gisa **edukien sormenean eta zabalkunde**an bizkortzea.
Berdintasunean eta genero kontuetan heztea.
Talde-lana, elkarrizketa eta ideiak komunean jartzea bultzatzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
60 min.	Lana bukatu.	Forma eta edukia. Mezuak.	Bulegoko materiala. Kartoi meheak. Lan egiteko aldizkariak eta argazkiak.
60 min.	Behin betiko kartela komunean jarri.	Nola egin da? Zer indartu nahi izan da? Zer adierazi nahi izan da?	Ordenagailuak eta internet. Inpresora. Azetatoak.

Lana bukatu-----60 min.

Kartelak bukatzeko materiala banatu: kartoi mehe handiak, errotuladoreak. Lana definituta dagoenean (zirriborroa, eslogana eta irudia), interneten irudiak bilatu. Lan guztiak definitzen bukatu.

Behin betiko kartela edo albistea komunean jarri-----45 min.

Lan guztiak komunean jarri. Bakoitzaren iruzkin txikia egingo da, adierazi nahi duena ulertzen saiatuz, ideia nondik abiatu den, edukia adierazteko erabilitako baliabideak (testuak zein irudiak) eta eztabaidan, lan bakoitzaren inguruan aterako diren beste hainbat kontu.



4. SAIOA

HELBURUAK

Hiritar aktibo gisa **edukien sormenean eta zabalkunde**an bizkortzea.
Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
80 min.	Eskaneatutako kartelak zintzilikatu.	Teknologia. Irudi digitalak. Sareko informazioa.	Ordenagailua eta internet-a. Behin betiko kartelak. Eskanerra.
40 min.	Lantegiaren inguruko eztabaida. Lantegiaren ebaluazioa.	Ebaluazio pertsonalak.	Ebaluazio-inkestak.

Kartelak interneten zintzilikatu-----**80 min.**

Lan guztiak eskaneatu eta webera igo, www.flickr.com/photos/epa.elcarmen. Kartelak zintzilikatu aurretik, ikasle bakoitzak ondo etiketatu eta iruzkindu du bere kartela webean.

Lantegiaren inguruko eztabaida-----**40 min.**

Lantegiaren dinamikari buruz hitz egingo da, saio bakoitzeko lana eta balorazio orokorra. Inkestak banatu eta bete, horrela eztabaidari eta inkestei esker, egindako lanaren inguruan duten iritzia lortuko dugu.